

## **2020KO GARAGARRILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2020eko garagarrilaren 30ean, arratsaldeko 7:00etan

### **BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EHBildu)

### **Zinegotziak:**

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- MIREN GARBIÑE OLEALDEKOA ORBE andrea(EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- IRATI ABIO MURUAGA andrea(EH Bildu)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- GORKA URIARTE URAZURRUTIA jauna (EAJ-PNV)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)
- JAVIER MIGUEL ALVARADO jauna (BAKIOBAI)

Zinegotzi hau ez da bertaratu: - GUILLERMO MARTÍN MARTÍN jauna (EAJ-PNV).

Helburua: Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”adagoala egiaztatu orduko, alkate andrearen lehenakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2020KO BAGILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2020ko bagilaren 25ean egindako ohiko udalbatzaren akta. Zinegotziak adierazo dau aktan, dagoeneko, egin dirala Begoña Abio zinegotziak aitatutako zuzenketak. Ostean, alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

## **2.-. ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON 185TIK 221. DEKRETURA ARTE.**

Gai honeri hasikerea emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

185/2020.- Itxas-Alderri Ibarreta erabiltzeko baimena ematea.

186/2020.- Elortegi Anaiak taldeari probalekua erabiltzeko baimena ematea.

187/2020.- Alaitasuna taldeari probalekua erabiltzeko baimena ematea.

188/2020.- Txerokiak taldeari Ibarreta erabiltzeko baimena ematea.

189/2020.- Astopotroak taldeari Ibarreta erabiltzeko baimena ematea.

190/2020.- Kontratazio Mahaiaren 2020ko ekainaren 12ko erabaki-proposamena, AUTOS ORTASA enpresaren alde.

191/2020.-. Lan-poltsa osatzeko prozesuan parte hartzeko onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda.

192/2020.- Film laburra grabatzeko baimena.

193/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea.

194/2020.- ELAI enpresaren aldeko proposamena, kontratazino mahaiak eginikoa.

195/2020.- Bakioko Txistulariei Ibarreta erabiltzeko baimena ematea..

196/2020.- Toldo bat ipinteko baimena.

197/2020.- Poliesterreko igerilekua egiteko baimena.

198/2020.- EH Bilduren ekitaldia egiteko baimena.

199/2020.- Administrarien lan poltsa onartzea.

200/2020.- San Pelaioko hamaiketakoa egiteko baimena.

201/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea..

202/2020.- Udaltzaingoaren lan poltsa onartzea.

203/2020.- Kanpusa egiteko baimena.

- 204/2020.- Nominak ordaintzeko ebazpena.
- 205/2020.- Bitarteko funtzionario baten izendapena..
- 206/2020.- Obrak legeztatzeko baimena.
- 207/2020.- Kontratu txikiaren adjudikazinoa.
- 208/2020.- Minbiziaren kontrako kanpaina egiteko baimena.
- 209/2020.- Animalia arriskutsua eukiteko lizentzia.
- 210/2020.- Ondare erreklamazino bat ezestea.
- 211/2020.- Ondare erreklamazino bat baiestea.
- 212/2020.- Kontratazino mahaiaren proposamena onartzea.
- 213/2020.- Bitarteko udaltzain baten izendapena.
- 214/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 215/2020.- Udal lorezaintzaren esleipena.
- 216/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.
- 217/2020.- Mahai bat eta jesarlekuak ipinteko baimena.
- 218/2020.- Bitarteko funtzionario baten izendapena.
- 219/2020.- Obra lizentzia emoteko ebazpena.
- 220/2020.- Lehen okupazinarako lizentzia emotea.
- 221/2020.- Bakioko Abesbatzari Ibarreta egun batean erabilteko baimena emotea.

Ostean, Josu Garai zinegotziak musika taldeei udal lokalen erabilera lagatzeko arrazoia zein izan dan galdetu dau.

Amets Jauregizar alkate andreak hauxe erantzun deutso: musika taldeek lehen be udal lokalean egiten ebazan entseguak, eta Covid-19 dala-eta konfinamenduagaitik lokalak itxita egon dira, eta, orain, erabagi dana da udal lokala erabilteko baimena emotea, baina baldintza zehatz batzuetan koronabirusaren agerraldia ekiditeko, esaterako pertsonen arteko tartek gorde, eta abar.

### **3.- 2020KO EKITALDIARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON, BAGILAREN 30ERA ARTEKOARI JAGOKONEZ.**

Amets Jauregizar alkate andreak, aurtengo udal aurrekontuak bagilaren 30era arte izandako bilakaeraren barri emon dau, zinegotziei emondako agirietan azaltzen dan modura. Horrela bada, laburbilduz adierazo dau diru sarreretan eskubide garbiak 3.173.443,15 euro izan dirala, eta, gastuei jagokenez, aitortutako obligazioak 1.299.245,97 euro, euron arteko aldea 1.874.227,60 euro izanik.

Begoña Abio zinegotziak dino datuak bagilaren arteko kontuak direla, baina oraindino ez daukagula udalbatzak 2020ko bagilaren 25ean onartutako 2020ko udal aurrekontuaren partidak.

Alkate andreak dinotso ekonomia arlo teknikaria 2020ko udal aurrekontuaren prozesatzen dabiltzazela.

### **4.- 2020KO BIGARREN HIRUHILEKOARI JAGOKOZAN BATEZ BESTEKO ORDAINKETA EPEAREN ETA 39. BERANKORTASUN TXOSTENAREN BARRI EMON.**

Seko 15/2010 Legearen 4. artikulua arabera, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiru hilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2020ko uztaileko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta 2020ko bigarren hiruhilekoari jagokon berankortasunaren datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren arabera:

<b><i>HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETAK</i></b>	
<i>Ordaindu diranak legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe barruan</i>
376.136,25 €	259 ordainketa kopuru
<i>Ordaindu diranak legezko epeetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe kanpora</i>
20.735,04 €	14 ordainketa kopuru

<b><i>HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK</i></b>	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epeetik kanpo</i>
181.418,99 €	564,35 €

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan agiri da.

Horrezaz gain, 2020ko bigarren hiruhilekoari jagokozan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea hauxe izan da: 0,97egun.

Zinegotziak horren guztiorren jakinaren ganean geratu dira.

## **5.- BISCAYTIK ERAKUNDEAK ETA BAKIOKO UDALAK SINATZEKO ESPARRU-HITZARMENA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Atoan, Irati Abio alkateorde andreak, berbea hartu eta hauxe adierazo dau:

*BiscayTIK Fundazioak eta Bakioko Udalak lehendik daukie hitzarmena sinatuta, udal zerbitzu zehatz batzuk Fundazio horrek bere aplikazino elektronikoaren bidez emoteko.*

*Hitzartuta daukagun zerbitzuak gain, orain gura dana da BiscayTIKek bere aplikazinoaren bidez zerbitzu honeek emotea: udal pertsonalaren nominak egin eta turismo web gunea egituratu eta mantenimendua egin.*

BISCAYTIK proiektuaren esparruan zerbitzu zehatzak jasotzeko hemen onartzea proposatzen den Hitzarmen Markoaren berri zinegotzi guztiek daukien ezkerero, udalaren osoko bilkurak, bertaratutako zinegotzieren aho batez, erabaki hau hartu du:

**1.- BiscayTIK Fundazioak eta Bakioko Udalak sinatzeko prestatutako 2020ko uztailleko hitzarmen markoa onartzea.**

**2.- Alkate andreari beharrezko ahalmenak ematea, hitzarmen marko hau izenpetu ahal izateko.**

## **6.- BAKIOKO ZUBIAURREALDE AUZOKO 42. ETA 43. ZENBAKIEN INGURUA URBANITZATZEKO PROIEKTUA ONARTU (1. FASEA).**

Amets Jauregizar, alkate andreak, proiektuari buruz hauxe adierazo dau:

Udalaren mugikortasun plangintza gauzatzeko obra zehatz batzuk egin beharra ezinbestekoa da, besteak beste orain onartzea proposatzen dana. Zubiaurrealde auzoan egiteko diran obrak hiru fasetan banatuta dagoz, baina orain onartzea proposatzen da 1. Fasearen proiektua. Aurten 1. Faseko obrak egiteko asmoa dago, obren helburua hauxe izanik:

*Ibilgailuen mugikortasuna hobetzea Zubiaurrealde eta udalerriko lekuak (kiroldegia, txakolingunea, futbol-zelaia, etab.) lotzen dituen espaloia oinarritzko zerbitzuak eta ekipamenduak egokituz.*

*Zubiaurrealde udalerriko lekuekin (kiroldegia, txakolingunea, futbol-zelaia, etab.) lotzen duen espaloiaaren oinarritzko zerbitzu eta ekipamenduen erabiltzaile guztien irisgarritasuna eta ibilgailuen mugikortasuna hobetzea.*

*Jarduketak eremu horretarako irisgarritasuna bermatzera bideratuta daude, ibaiaren ondoan ibai-pasealeku bat eta aparkaleku zabal bat sortuz.*

Alkate andreak azaldu dau be bai, obren nondik norakoa eta URA-uraren euskal agentziagaz sinatzeko dagoan hitzarmenaren asmoa.

Ostean, udalaren osoko bilkurak, aho batez, hau da, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoagaz, erabagi hau hartu eban:

**Bakioko Zubiaurrealde auzoko 42. eta 43. Zenbakien ingurua urbanitzatzeko proiektua onartu (1Fasea), obren aurrekontu orokorra 199.962,80 euro izanik.**

## **7- 2019-2020 IKASTURTEARI JAGOKONEZ, EUSKERA IKASTEAGAITIKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Zinegotziek gaiaren jakitun dirala kontuan hartuz; izan be, informazio batzordean aztertu da eta, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **2019-2020 ikasturteari jagokonez, euskera ikasteagaitiko dirulaguntzaren deialdia onestea, edukia hauxe izanik:**

### **1. HELBURUAK ETA DOTAZIOAK**

*Bakioko Udalak, euskararen normalizazioa arlo guztietara sustatzeko helburua hartuta, besteak beste, euskara ikasi nahi duten herritarrei erraztasunak eman nahi dizkie eta, horretarako, egokitzat jo du euskara ikasleentzako diru-laguntza sistema antolatzea eta arautzea.*

*Deialdiaren xedea, Bakion erroldatutako biztanleentzako diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea da, 2018/2019 ikasturtean zehar edota udan helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiteagatik homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan.*

*Udalak 2.000 euroko diru-zainpeketa onartu du udal aurrekontuaren 330-4810119 partidan.*

### **2. JASOTZAILEAK**

*Diru-laguntzaren jasotzaileak: Bakion erroldatuta egon, hamasei urte izan, eta ikastaroak euskaltegi homologatuetan egin dituztenak izango dira.*

***Bakion erroldatuta egotea.***

***Gutxienez %75etik gorako asistentzia izatea.***

***Bakioko udalean zorrik ez izatea.***

### **3. EPEAK**

*Eskariak aurkezteko epea, deialdia onartzen den egunetik hasita zabalik egongo da 2020ko urriaren 20eko 13:00era arte, hain zuzen).*

### **4. EMATEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK**

*Diru-laguntzak asistentziaren eta aprobetxamendu edo gainditze mailaren arabera banatuko dira.*

*Hartara, Ikastaroaren iraupen-denboran %75ko asistentzia egiaztatu beharko da.*

*Era berean, egindako maila edo mailak gainditu beharko dira edo, bestela, egindako ikastaroetan aprobetxamendu egokia izan. Hori guztia euskaltegiaren ziurtagiri bitartez egiaztatuko da.*

*Matrikularen %30 lagunduko da diruz. Hala ere, eskatzaileei gehienez eman dakizkiekeen diru-laguntzen kopurua 95 eurokoa izango da.*

*Gerta daiteke eskaera kopuruaren ondorioz diru-laguntzaren 95 euroko kopurua behar bestekoa ez izatea ontzat emandako eskaera guztiei zenbateko hori eman ahal izateko; halakorik gertatuz gero, aurrekontu partidan ezarritako diru-kopurua ontzat emandako eskaeren artean hainbanatuko da modu proportzionalean.*

### **5. ESKARIAK**

*Eskabide-orria udal erregistroan aurkeztuko da honako agiriekin batera:*

- Matrikularen ordainagiria edota zentroak egindako ziurtagiria.*
- Euskaltegiaren ziurtagiria ondoko datuekin: ikasturtea, hasiera eta amaiera egunak, ordutegia, hasierako maila, ikastaroaren ordu teorikoak, aprobetxamendua zein ikasleak emandako orduak eta matrikularen prezioa.*

### **6. INSTRUKZIOA, ERABAKIA ETA BIRFORMULAZIOA**

*Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren aztertu egingo dira eta, hala badagokio, interesdunei jakinaraziko zaie hamar eguneko epea dutela falta den dokumentazioa aurkezteko.*

*Epe horren ostean, eskariak aztertuko dira informazio batzordeak erabakia eman behar duen udalbatzari bere irizpena helarazteko.*

*Erabakia emandakoan, udalaren iragarki oholean eta webgunean emango da erabakiaren berri, interesdunek jakin dezaten non aurkitu informazioa.*

*Horrela, onuradunak bere eskaria birformulatu ahal izango du entzunaldiko hamabost eguneko epean. Birformulazio horiek informazio batzordeak onartu edo baztertu egin ditzake eta beharrezko kasuetan, berriro irizpena helarazi.*

*Birformulazio edo uko egite kasurik egon ezean, emandako diru-laguntza onartzen dela ulertzen da.*

## **7. BATERAGARRITASUNA**

*Diru-laguntza hauek, helburu bera duten beste administrazio edo ente publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoa, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste diru-laguntza batzuekin bateragarriak dira.*

*Edozein modutan, diru-laguntza inoiz ez da izango diruz laguntzen den proiektuaren gastua baino handiagoa.*

## **8. ORDAINKETAK**

*Erabakia ematean, onartutako diru-laguntza ingresatuko da.*

## **9. ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

- Baldintzak bete direla egiaztatzea, eta diru-laguntzak oinarri duen jarduera bete dela.*
- Diruz lagunduriko jarduerentzat bestelako diru-laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu direla jakinaraztea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta izatekotan, jasotako funtsei emandako aplikazioa egiaztatu aurretik.*

## **10. DIRU-LAGUNTZEN ITZULKETA**

*Halaber, dirua itzultzeko zioak dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. eta 37 artikuluetan jasotako guztiak.*

## **11. KLAUSULA GEHIGARRIA**

*Deialdi honetan jasotzen ez diren bestelako gaiak dagokienez, 38/2003 Diru-laguntzen Lege orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari lotu beharko zaio.*



## 8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Begoña Abio zinegotziak, gai bi honeek adierazo dauz:

*Jai egunetan eta igandeetan kaleen garbitasunik egiten ez dan ezkerro, moila puntako auzotar batzuk komentau deuskue ingurua oso lohi egoten dala, tabernak egonik jendea pilatzen delako, eta ia garbitasun zerbitzua egun horreetan emon daiteken.*

*Kiroldegiko inguruan TAO zerbitzua dagoan arren, bertan TAOri buruzko txartelik ez dauken kotxeak aparkatuta egoten dirala-eta persona bateren bat kexatu egin da. Beraz, aztertu beharko da arazo hori zelan konpondu.*

Ametz Jaurergizar alkate andreak hauxe erantzun deutso:

Garbitasun zerbitzuaren ganean hauxe: aurtengo udan jai egunetan eta igandeetan paperontziak hutsitzeko empresa bategaz kontratu txikia sinatuta daukagu, eta horren arduradunagaz berba egiteko asmoa dago eskatzeko ia prest legoken paperontziak hutsitzen dauzanean ingurua garbitzeko. Beste aldetik, udal lantaldeari ezin deusagu eskatu jai egunetan eta igandeetan beharra egiteko, ze beharginak atsedean egunak be izan behar dabez eta.

TAOri jagokonez, Begoñak azaldutako arazoari berehala urtenbidea emotea gatxa da, ze udan kotxe asko dabil eta, baina, datorren urteari begira, arazoari konponbidea aurkitu beharko deusagu.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoan ezkerro, ezta gai-zerrendatik kanpo be, alkate andreak batzar hau 19:50ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria